

ZER

BIZKAITAR
BIZKAIERA
36n. ZENBA
URRILLA
- 1980 -



LEKAIME

BENEDITARRAK


OÑATI'N

(BENITO DEUNAREN XV GIZALDIAN)

Porque lo nuestro es Vizcaya Bizkaia geurea dogulako

Couje eu nostras

Zerre nstea gurea



**CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO
BILBO AURREZKI KUTXA**

LAN-URTERA

OPORRAK ETA JOLASAK

Gure artean udaldia, oporren eta jaien aldia izaten da. Egin egiten da lan an or emen, baiña isillean eta lotsaturik lez. Giroa, ingurua, jaien eta oporren artean dabillana da.

Atsedeen-aldi au bearrezkoa izan dogu, besterik ezean lanari lotuta beti bizi barik, alkar ezagutzeko eta barriak alkarrari emoteko; gizar-teko jakintza alkarren artean zabaltzeko be erea izan dagigun.

Ez da izan jaiak egiteko be alkartasun osorik. Politikako alderdiak batera ez dirala etorri-eta, izan dira jaiak eratzeko aldatzak errietan. Eta mingarria da, benetan, euskaldunak ezerterako be ez alkartzea: jaiak eratzeko be ez. Zenbat kalte egiten dausogun Erriari geure alkar-ule-rtu eziñak dirala-ta.

* * *

POLITIKARIAK

Geien agertzen jakuzan langilleak, politikariak dira. Orreik irratia ta urrutikuskiña eurakandu dabez eta itxura baten esan lei eurak bakarrik dabilzala batera ta bestera, lanean eta erriaren alde jokutzen.

Oporrean izan dira orreik be eta ondo jakin dogu nondik nora ibilli diran eta noiztik nozerako atsedena artu daben. Zalantza barik, guri esaten ez dauskuezan ibillaldi ta jolas-aldi asko be egingo zituen.

Eldu da oneintzat be lan-urtea eta or aurkitzen doguz mai ederren ostea:p, nor-etorriko itxaroten. Egingo al dabe Erriak bear deuan lan bateratzaille ta aurreratzaillea. Ba-dago zer-egin, errigintza ta dirugintza inda rtu bear ba'dira

* * *

IKASLEAK

Ikasleak dira gogotsu ta benetan oporra artzen dabenen beste talde bat. Eta ikasleakaz batera irakasleak be bai. Danentzat dago Ian apur bat ikasketak ondo bete ez diralako, baiña udako ikas-aldiak nasaiak izaten dira.

Eta ikasleak be, liburu barriak euren zorroetan artuta or doaz bakoitxa bere ikastetxera, adiñez eta lanbidez berezizuta.

Bearrezkoa da, ezelako aurrerapenik nai ba'dogu, ikasleen eta irakasleen lana. Eta batez be, gure jakintza edo kultureari begiratu ezkeru, bearkizun ori negargarri biurtzen jaku.

Laster izango dira lan-izteak eta geldi-aldiak arlo orretan, bear ba'da nastaztailleen batzuk orretarako eraginda, baiña ikasketak bear dan egokitasunez egiten ez ba'dira, Erriarentzat zori txarra baiño ez da etorriko, ez epe labur bate epe luzerako baiño.

**

LANGILLEAK

Nork ez dau poz pizka bat bere barruan asmau Polonia'ko lan-iztea izan dala-ta? Eta pozaz batera itxaropena) An izan dan zapalketa, eta dana, kentzea nai dogulako. An ez zan iñoz olako lan-izterik izaten. Emen ostera olako opor egiteakaz ia naikotuta gagoz.

Ba-dator ba, langilleentzat be lan-urte barria, opor-egunak igaro ondoren. Onein atsedeen-egunak urriagoak izan dira eta ez dabe uda guztiko atsedeenik izan, baiña geienak bai zerbait.

Beste asko, ostera, aspaldion dagoz lanik egin barik, lan-tokirik ez daukelako. Ekarriko ete dau lan-urte barri oiek aspaldiko larrialdien urtenbiderik?

**

ERLATOKI LEZ

Ona emen barriro, gizar-tea erlatoki lantsu lez, bakoitxa bere maillan guztiak edo geienak lagille dituala. Batzuk diru-truke eguneroko ogia erosteko sariaren billa, beste batzuk gizar-teari laguntza emoteko eta lan-bitarteetan alegiñak egiten mundua obetu daiten, baiña guztiok lanean.

Ulertuko al dogu lanak daukan gizar-te-esangurea, alkar-laguntzaren eskaria, eta izango al da lana gizonak al-kartzeko bidea, diruaren norberekeri estuak alde batera itzirik, zuzentasuna zapaldu barik, ez-bardintasuna ugaritu barik...

TXORI LOTUAK, MENDIA AMES

*Amesti utsa nozu neurez;
Orain lotuta naukazunez,
Txori baituak mendia lez
Neuk be beti dot kalea ames.*

*Zeñien ederra bake gozo,
Azke ibilteko zelai, baso,
Arizain erara lxislulari,
Txorien antzo abeslari.*

*Bakean bizi giñanehn,
Ba-zan, bai, poza gure etxean;
Zaarrak soloetan lanean,
Umeak jolas etxaurrean.*

*Udabarria etortean,
A inbat loraxo baratzean;
Txoriak alai, zugatzetan,
Artaldeak **beeka** landetan.*

*Izadi dana jantzi barriz;
Euzkiak goian argi diz-diz,
Eta illuntzean, izarrakin,
Iretargia gau-erregin.*

*Gu zelaietan, **azke**, pozik,
Jainkoa lagun gendularik,
Ameska bell zorunian,
A ingerutxoan jauregian.*

*Olan zalarik gentzaldia,
A maigabeko udatia,
Zelan bizi ez Aberrian
A inbat atsegiñen erdian?*

*Udaren jarrai, negu illun,
Pozak biurtuz naigabe itun...
Bake gozoaren ostean...
Guda... dana auts-egin naiean.*

*Guda beti da gauza zatar,
Goroto jantzi baltza dakar...
Umeak bildur, zaarrak dar-dar...
Euskal-Erriak ulu-negar...!*

*Leengo txorien doñu ordez
(1) «Capronni» baltzak, arrano lez,
Bizkai guztia su ta garrez
Triska, birrindu, austu naiez.*

*Lorategi zan baratzxua,
Zulo zakar bat biurtua...!
Pagadipeko itzalpean,
Odol-osiñak lur gainean.*

*Gure soloak apurtuak,
Ainbat baseixe ondatuak...
Ama... umeek... zurtz...l negarrez...
Aita... semeak... ageri ez...l*

*4 ndre, gizonak espelxeetan...
Aurrak bakarrik etxeetan.../
Zenbat alargun jantzi baltzez,
Negar, otoika illen alde.*

*Ainbat zoriotzar ikusirik,
Zelan egon ez gogoaldurik?
Zelan guda ballzaren orde,
Bake gozoaz ez eñ-ames?*

*Gentza ederra! Nora ziñan?
Zugaz gu pozik bizi giñan.
Benetan alai baserrian...
Orain zergaitik baitegian?*

*Bake...! Zu gugaz ziñanean,
Ez gendun ames gudatean...
Bahia jo gaitu, jo gogorrez...
Ta orain emen zu zaut ames.*

*Erdu, bai, arin gudan orde...
Euskal-Erriak lei, yoranez,
Txori lotuak mendia lez,
ARKATASUNA bai-dau ames.*

*Ames!! utsa nozu neurez,
Baiña lotuta nagotsunez,
Txori baituak mendia lez,
Nik be kalea dot oin ames.*

A ita **BATIZ**'ek

Nanclares de Oca'ko espetxean, 1938/8/13

(1) *Capronni* izena eben Euskel'erria aputtzera italiarrak bialdu zituen egazkiñak. Alemanak, barriz, JUNKER eta HEINKEL izenekoak ziran.

Aingerutxa zerura

GOIRIA

Seaskatxoan dago aurtxoan
iltzen eriotz-atean;
bere ondoan ama gaxoa,
samin-ituna barnean.

Ume gaxoak abots makalez
seaskatxotik diñotso:
Zergaitik zagoz itun-negarrez?
Zergaitik goibel, amatxo?

Zuk ez negarrik, ama laztana,
ar nire azken mosua;
laster ilko naz eta pozarren
zabalik dakust zeru a.

Agur amatxo, zerura arte;
ez dot nai bizi munduan;
gaurdanik zu-zai aingerutxo bat
izango dozu zeruan.

Oa ba seme, oa zerura,
ar eik bai nire patxoa;
ez ik aztu an zeru aundian
ire amatxo gaxoa.

Eta umeak bere begi ta
espanak itxi ebazan,
eta aingeruen talde-artean
zeru aundira joan zan.

Bilbao - 1930

Benito Deuna ta Euskalerrria

LENAGO

Gure artean ondo zabaldua dago, lekaideak zelako lana egin daben erriaren alde, baiña ez da aitzu bear lekaideak Euskalerrrian Benito deuna baiño lenago-koak dirala. Gero Benitoiren araudipean barrizatze ta indar aundia lortu eben.

Ez uste izan beneditarren lana, lekaide-lekaimeen lana, gogo utsezkoa izan danik. Eziketari, etxegintzan, lur-langintzan, liburugintzan... eta zenbat arlotan izan daben euren eragiña, ez dau aitzu bearko Europa guztiak, eta ez Euskalerrria be.

MENDEURRENA

Aurten mundu guztiko bededitarrak Benito c'eunaren XV mendeurrena ospatzen dab e.

Ori dala-ta, Oñati'ko lekaime beneditarren etxean otoitz eta gogaketa-aldia izan d t, Lazkao'ko, Estibaliz'ko eta Oñati'ko beneditarrak eratzaille dirala. Egunak, uztaillaren 21, 22, 23, 24.

Egun gogoangarriak izan doguz, bai bertako giroa ain gizatia ta euskalduna, baita bertan ezagutu doguzan eleiz-gizon eta emakume apal eta biotz onekoak eza-gutzeko erea izan dogulako be.

EUSKERAZ

Gure izkuntzak ez dauala aurrerape-nik lortzen eta illetea jotari ibiltari gara

sar'itan. Ba antxe izan dogu sekulako erea euskerearen aurrerapari aundi bat ikusteko.

Euskalerrri guztitik (Naparroa'tik izan ezirik) batu ziran an batzarkideak eta ez zan berbarik be egin euskeraz izan ezirik. Orain urte batzuk, amar bat urte, olakorik ames be ezin zeitekean egin, baiña zorionez lekaideak sasoz artu eben, isilean, bide egokia. Orra or ondoren zuzena.

Ameriketarik etorritako eta Atxondo'ko alabea dan lekaime bat be ezagutu genduan: Zelako poza arena, batzar guztiak euskeraz izango zirala «Vida Nueva» aldizkarian irakurri ebanean! Geiago barik izena emon eban. Euskeraz berba egiteko gaiztasun apur bat ba-eukan, baiña erri-miña barruan!



Eta ez batzarrak beste barik! Eleizako abesti guztiak, orduen Liturjia oso-osoa, Meza guztiak... Dan-dana euskeraz abestuta, egunero iru edo lau saioaldi egin ondoren. Gauza ederra benetan! Alkar-izketa guztiak be euskeraz!

BERBALDIK

Egunean itzaldi bat izan genduan: Lenengo egunean Pedro Nuñez Sakramentinoarena, «Bibliaren irakurketa otoitz-giroan» gai dala; bigarren, Oñatibia'tar Ignazio'rena, «Liturji-otoitza ta bizitza» gai dala; irugarrenean Juan Mari Uriarte Gotzaiñarena «Lekaideak Eleizan gaur» gai dala; eta laugarrena Zunzunegi'tar Jose Mari'rena «Lekaide beneditarrak Europa'n: Sebitzari ta Testigu» gai dala.

Gogoangarriak berbaldi guztiak, batez be Zunzunegi'k azaldu euskuzan Beneditarren lanak eta Uriarte gotzaiñak agertu euskun Lekaideen gaurko zeregiña, aitzu-eziñak izan ziran.

Azkenean iru txosten: «Benito Santuaren bizitza ta erregela» deritxon liburuaren aurkezpena, Lekaide euskaldunen izenak munduan eta Basile Joannateguy idaztearen barriak. Apaolaza, Mujika, Ozaeta eta Baztarrika beneditarrak izlari.

BIZKAIAN?

Aspaldion diardugu entzuten Bizkaia'n lekaide Beneditarren etxe bat sortu bear dala. Ziarrutza'n izango ete zan be ntzun genduan. Gauza ederra litzake. Noiz izango ete da egi? Gaurko gizon Jainko-zaleentzat opor-egunak igaroteko ara egokia be ba-dira lekaide-etxe oneik.



JOSE DOMINGO UGARTETXEA

MUSIKALARIA

(GOIAN BEGO)

Aurten izan dira berrogei urte. Sevilla'n, Aste Santuko Kofradietako batek sari ugariak iragarri zituan, Kofradi orren ez dakit zenbakarren urtea zala-ta. Sail askotan bandutako sariak. Ba-ziran literatura-saillekoak, istori-saillekoak eta abar. Musika-saillekoa be bai bat, latinez Jesusen buru zaurituari kantua: *Salve, caput cruentatum*. Kofradiaren sariketa orrek ez eban esateko erantzunik artu. Musika-saillerako bi agertu ziran, biak saritu eta aipatuak, biak euskaldunak, biak Carmona'ko espetxean egozanak: Modesto Arana, Berriz'ko semea, gero Bilbo'ko «Sociedad Coral» zanaren zuzendari izango zana, abade gaztea; eta Jose Domingo Ugartetxea, karmeldar praille adthekoa, Markiñarra.

Berezkoa zanez, espetxeko abade prailcak goragoraka artu eben espetxe-lagunen sari irabaztea. Eta ez abade-prailleak bakarrik, euren espetxe-lagun ebel Besteiro ospetsuak be bai. Aste Santuan, Bariku Sartuz, izan zan kantu saritua, lau abotsetara, entzuteko aukerea, arratsaldeko elizkizun baten. An zan kapillan Besteiro be, bere lagunen kantu ori entzutearren.

Modesto Arana, gazte saritua, urte mordoa da il zala; Jose Domingo, barriz, oraintxe joan jaku joan dan garillaren 18'an, bere jaioterri maitea eban Markiñan, erriko jaien barruan.

Beronen barri emotean, beioa aurretik orain berrogei urteko gomutapen au. Nok usteke eban orduan ain zartzaro ederrera elduko zanik iru urte lenago militarren eskuz ilteko etetean egon zan praille au? Izan be, Zorrontza'ra lenen sartu ziran militarrek praille mordoa ilteko agindua ekarren. Bat il eben: Aita Erroman. Baiña Jose Domingo eta beste praille bi, Jaungoikoz, bizirik eroan ebezan Durango'ko komandantearen aurrera. «Zer? Bizirik dakazuez?», militarraren asarrezko itauna. Orain ez dakie zer egin. Prailleai inon ziranak esanda gero, gero ta artegago, alango baten badiñtse prailleai: «Ba-dozue gero ezagunik, zuon alde erantzun daikenik-edo?». Eta Jose Domingok: «Nik, Gazteizen, Jil Yuste jeneralas. Iru prailleak orduantxe iges egin eutsen eriotzeari. Baiña ez espetxerik espetxe ibiltari.

* * *

Baiña nor genduan praille au? Irakurleak igarri dau onezkeru musikalaria baten aurrean gareala. Musikalaria izan da ume-umetatik. Markiña'n jaioa 1888'an, orain 92 urte. Txiki-txikitatik jo eban musikara. Mutikotxu zala asi zan organu jotan. Bein organistearen utsunea bete izan bear eban erriko jai-egun baten. Arteगतxo bera, lenengo-

ko plazaratze orrek zelan urtengo ete eutsan arduraz. Osaba batek, adore emoteko, badiñotso: «Ez estutu, mutil. Ondo jo, txarto jo, joa jo. Ez bildurtu». Bildurrak bildur, ez ei eutsan organista-lanak txarto urten.

Pakotxu'ren anal bik (Frantzisko eban bataio-izena), abadetzarako bidea artuta euken; berak praille karmeldarretarako artuko dau. Abadetarik bata be gero praille karmeldar sartuko zan. Pakotxu, prailletan izen barria artuta, Jose Domingo biartu da, eta prailletzan girorik ederrera aurkitu dau musikarako, eleiz-musikea Pio X'aren bidetik barriztau gura eben prailleen giroa. *Erreztasun* guztizkoak emon deutsez musika-ikastea aurrera eroateko. Inguruko maisurik onenak ipiñi deutsoez: Balentin Larrea, Beobide, Birgala... Gregoriano deritxon musikan maisuago egiteko, Solesmes'era izango da.

* * *

Laster asten da musikagiñen, ikasitako eskola ona eta bere trebetasuna erakusten. Kantu barriak ek iz-kantak, erri-kantak, latinezko, euskerazko naiz erderazkoak, alkarren ondoan datoz. Diskotan be atera deutsoe bat edo beste, Bilboko «Coral» zana kantari. «Vesperale Romanum» atera dauanean (1924), Monserrat'eko beneditarrak, arri-turik, eleiz-musikalari andi aurrelarizat izentau dabe, Gregorianisten artean benetan maisu. Sail onetan jarraiturik, geroago beste «Vesperale» bat geiago, eta baita «Matutinale», eta «Graduale» aterako ditu. Leku askotatik datorkioz musika-eske: Sortu barri dan «Txistulari» aldizkari-tik, eleiz-soñuak edo organu musikea batzen diarduenen aldetik, Euskalerriko musikalaria Asis'ko Franzisko doneari egin gura eutsoen omenaldirako eta abar.

* * *

Gazteiz'en eta Iruñan emon ditu urterik onenak, Nagusi edo nagusi ordeko, karmeldar ikasle gazteen ardura-dun, organista gazteen maisu eta koruko zuzendari. Gazteiz'ko Eleizbarrutian musika-batzordeko izan zan, baita, euskerazko liburuai eleiz-baimena emoteko azterlari. Gazteiz'en, España guztitik batuta, ospatu zan Eleiz-musika Batzar Nagusia eratu eta aurrera eroaten lan andia egitea egokitu jakon.

Ospetik zabalena, bear ba'da, 1926'an, Bolibar'en, Bizkaian, Amerikarrak euren Askatzailleari egin eutsen omenaldirako ereserkiak, innoak, emon eutson. Euskerazko eta erderazko bertsoetan egiña dago, baiña Ipar-Amerikan ingles bertsoak ezarri eta Amerika'ko inno nausien artean zabaldu eben Jose Domingo'ren musika-lan au.

* * *

Zorrontza'n, Larrea'ko bakelekuan dogu 1936'garren urtean, ango praille gazteen maisu eta bertako bigarren nagusi. Orduantxe dago lenengoz euskal-giro garbiko bazter euskaldun baten, praille egin dan ezker. Baiña bakelekua zoritxar-leku biurtu jako dakigun gerratea ekarri ebenen zitalkeriz. Urtea baiño lenago, militarrek aurrera datozela, etxeari jabe egitearren, ondo bearrez, bertan gelditu da. Len esan danez, Gazteiz'en zala militar andi baten ezaupidea egin izanak atera eban militarren eskuz lotsagarriro ilda gelditzetik. Iru urte dabil gero espetxerik espetxe: Gazteiz, Begoña, Nanklares, Dueñas eta Sevilla ondoko Carmona'raiño. Espetxean ez eutsan itxi musika-lanari, bein kopia lanetan, bein kantu barriak asmetan edo zarrak atonduten, eta ango praille-abade kantarien zuzendari... Gitxien uste eban lekutik etorkiozan musika-eskeak, Oviedo'tik, Lamiako'tik eta abar. Espetxean ezarri eutsan itzaurrea bere musika-liburu bati.

Espetxeak ez eban gure musikalaria garraztu ez lurra jota itxi. Espetxeko ordu latzetan beretzat musikea gozagarririk onena. Espetxetik urten dauanean, 1940'an, erbestealdia ezarri deutsoe, Santander aldean. Eta emen Santander'ko musikalaria eta musikea ezagutzeko aukera izango dau, eta ango kantu batzuk be argitaratuko ditu, berak abotsetara atonduta. Andik asiko da bere kantuak txortaka argitara emoten. Erbestetik Euskalerriratzean, lengo lanari ekingo deutso karmeldarren ikastetxetan, Begoña'n, Gazteiz'en, Erroma'n, eta Zorrontza-Larrean, 1967'an bere jaioterrira (Markiña'ra) ekarri eben arte.

Erromatik etorri barritan, orain ogetaka urte, ondoez kezkarri bat agertu jakon. Osagilleak edegi eutsoen barrua, eta ez egoan zer egiñik. Bizitari alik luzaroen iraunerazoz besterik ez. Eta ez dautsoe gitxi iraunerazoz be! Andik urte gitxi barru, Kataluña'n aurkitzen da Jose Domingo. Meza barri bat atera dau moja batzuentzat, eta bera ikusi nai dabe meza orren zuzendari. Meza-aurretzoan badago organuan jarrita, eta abade bat urreratu jako. Meza-ren partituran Jose Domingo izena ikusi dau eta ba-diñotso berari: «Jose Domingo? Nire osaba Viñaspre musikalaria zanaren adiskide andia! Gixajoa, lengo urte baten il ei da». Eta Jose Domingok, barreari eutsi eziñik: «Egia diñozu, Viñaspre ori ta ni adiskide andiak giñan, izan be». Viñaspre'ren lloba orrek iltzat eukana aurrean eukan bizi-bizirik.

• Eta Jose Domingo'k aurretik botako zituen iltzat euken edo laster iltekoztat euken asko. Baña ez eban il nai, orraitio, bere aspaldiko ames bat egi biurtu arte, *Stabat Mater bat*, orkesta ta guztikoa, atera arte. Alan egingo dau. *Stabat Mater* ori 1961'ean entzun zan lenengoz, Markiña-Xemeingo eleizan, Gernika'ko Abesbatza kantari eta Bilbo'ko orkestea, Verkos maixuagaz, laguntzaille.

* * *

Azkenengo lana, azkenengo kukurrukua? Atakotzat eukan berak. Baiña baita zera bel Berak uste baiño geiago

luzatu eutsan Jaunak bizia. Eta ez narraseko bizi be gero! Larogeta zortzi amar urte zituela be, askok esaten eben Markiña'n, bera kalean zear ikusita: «Daukazan urteakaz, orrek dauka jaikia! Nok esango leuke orren zarra danik?». Eta jakiña, musika barik ezin bera bizi. Askok esaten eben musikeak bizi ebala, musikeak iraunerazoten eutsala beti gazte. Azken-urteotakoak ditu ainbat musika-lan barri: *Suite Vasca* (pianoz eta bioliñez), *Agate* deunaren abesti-txorta (9 guztiz), *Pasiñoko* abestiak (7), *Salbea*, *Ondarruri*, *Berrituri* eta *Markiñari* ereserkiak, *Biribilketa* (kantuz eta txistuz), eta abar.

Abar onetan sartu beariko da Goikoetxearen Mezea, orkestaz ornidua, argitaratzea be. Alegria, Santander'ko musikalaria meza orri orkesta-laguntza ezin ohea ezarri eutsala-ta, Araba'ko Diputazioñari axe argitarazoz arte ez eban onik izan. Eta emen agertu zan praille zar onen gazte sasoi. Alegria beraren baimena bear-ta, ara non joakun aregana, Santander'era, eguraldirik euritsueneko egun batez, egunean berean atzera Markiñaratzeko asmotan. Eta baimenagaz Markiñara zanean, Alegria adiskideagaz errukiturik etorren: «Gixajoa, oso aguretuta aurkitu dot»/- Berak zituen urteen gomutarik be ez.

* * *

Jose Domingo'k musika-lanik askotxo egin dau bere bizian, banaka argitaratukoak, txortaka emonak, organurako, txistuz joteko, kantetako, berak asmauak eta konponduak. Eleiz-kantak santu askorentzat emon zituen. Gaienakaz tomo lodi bat atera eban, espetxetik urtenda gero. Bardin egin eban euskalkantuekaz. Argitaratu bakoak asko gelditu jakoz, gure errietako kantari taldeai itxita. Mezak be bost bat itxi deuskuz: Euskal-meza bat, eta lau latiñezko, Andra Maria'rentzakoa bat, eta iru gabonmeza abotsetara. Eurotariko bat, iru abotsetakoa, berrogetamar urtez jarraian abestu izan da Azpeitin, igaz berrogetamargarrenez: Jose Domingo bera entzule ebela.

* * *

Gure markiñar oni zartzaro andira eltzen diran askori jazo oi jakoena jazo jako: luzaroege bizi izanaz, bere, ideko lagunik inguruan ez ikustea. Non dira gaur bizian bide-lagun izan zituen ainbeste musikalaria adiskide? *Stabat Mater* emon eban egunetan il izan ba'litz, lagun geiagok lagunduko eutsoen illobira, eta ots andiagoo aterako eban inguruan.

Alan be, illetako mezan, an ikusi genduzan gaur oso ospetsu diran musikalaria bi: Azkue organujolea, Europa'n eta Amerikan ospe andia lortu dauana, koruan organua joteko Donostiatik etorria. Eta Bilbo'tik etorrita, an zan Anton Larrauri, gaurko musikarieren artean gorengo mailakoa, Aita Jose Domingo zanari asko ikasia.

An zan Markiña'ko kantari-taldea, koruan kantari, euren erriko semeari azken agurra egiten. Eta ezin aitatu barik itxi Markiñako Ansola anai txistulariak. Guztion otoiak lagun, goian bego Jose Domingo (beretarren Pako) Ugaetetxea Urkieta praille musikalaria.

L. AKESOLO

ANTZERKIA

"TARTUFO" BILBON

ANTZERKI-LAN NAGUSIAK

Munduko antzerkitegian ba-dira «nagusiak» izendatu leikezan lan batzuk, eta onein artean, zalantza barik Molière'n «Tartufo» da bat. Ondo egiña, irakatsi aundikoa aldi guztietarako, elertian eztabaida-bako garrantzia daukana... Bilbo'ko jaietan eta Adolfo Marsillach zuzendari dala antzerki-lan eder au ikusteko erea izan dogu aurten. Aztertu dagigun pizka bat.

ALDAKUNTZAK

Adolfo Marsillach'ek bere erara agertu edo antzeztu dau elerti-lana: Guztiz gaurkotuta, ikus leak errez-errez esangurea artzeko eran eta Moliere'n oiñarria edo aria galdu barik.

Egia esan, neuk naiago izango neban, antzerkia dan lez antzeztu ba'leu, eta gaurkotze-lana neuk egingo neban, erreztasun aundiaz egin be. Baiña onetan ikusle bakoitxak bere eritxia izan daike eta ez ni iñor ori ezeztuteko. Nitzat pozik aundiena Moliere'k idatzi eban lez antzerkia ondo antzeztuta ikustea izango zan.

IKUSLEAK

Ikuslediar begira, nitzat gauzarik arrigarriena ikuslerik geienak gazteak zirala jakitea izan zan. Olako antzerkiak lenago zarren eta aberatsen gogo janari eztsua izaten ziran, baiña ainbeste gazte aretoan ikustea pozgarri izan jatan.

Antzezleriak aldi egoki batzutan jente-artetik urten eta ager-tokira urreratzea, aspaldiko oiturea dogu antzerkietan. Barrikeriak egin bear gaurkotzeko edo olako barri-usaiña emoteko. Ez dago txarto.

Eta agertokia bera be, Molière'n oarrak kontuan artu barik eta oso egokia izan zan. Aldakuntza aundi barik, Moncloa izan zeitekean etxe eder aundi bat beti aurrean dala, autor-lekuak ara ta ona, zentzun aundi barik, aldatzen dirala, bear diran erredizak etxearen azpitik, ateetik ateraten dirala...

* * *

KUNTZE EDO SEKSU-ARAZOA

A spaldiko zine ta antzerkietan kuntze edo seksu-arazoa nabarmen agertzen da, nabarmenegi bear ba'da, eta antzerki onek be, berez, eskintzen eban olako zerbait agertzeko erea: Tartufo'ren maite-min zoroa eta azalutsak agertzen edo gazteen maitemiña erakustean.

Baiña orretan Marsillach'ek ez dautso ikusleen egarri lizunari ezelako pozik emon. Irudibidez eta Valle-Inclan'en «esperpento»-tankeraz. Bear ba'da aldakuntza au be ez da ain egokia izango gaurko ikusle(\ntzat.

* * *

POLITIKALARIAK

Molière'k berak be antzerkia idatzi ebanean gogoan eukan politika-arazoa eta Sdkramentu-Bazkunekoan tartufokeria, baiña bere antzerkia bizitzako beste egoera asko aztertzeke be egokia zan. Marsillach'en antzez-bide onek, ostera, ez dauko politikearena baiño beste urtenbiderik. Ikuspegi bat artuz, idaz-lanaren zabaltasuna gitxi-Eu egin dau.

Moncloa'ren aurrez eta Suarez jaurleri-buruaren aurrean Tartufo nor dan argi gertzen da, bear leiteken baiño be argiago bear ba'da. 9

* * *

TXALO OTZAK

Ikusleen txaloak otzak izan ziran geure ustez. Antzezleriak naikoa ondo egin eben euren lana, gaia guztiz aurkoa ta interesgarria izan zan, aretoa beterik egoan... Tergaitik orduan ain txalo urriak eta otzak? Euskal-ara-agertzen ez zalako? Ez da erreza izaten ikusleen rantzupena neurtzea!

* * *

EZIBIDE

Gure eritxi-emote au amaitzeko, gauzatxu bat baka'ra gogoratu geunskie irakurleai: Antzerkia erriaren zibidean izkillu gogoangarria dogula eta guk euskaldunok be ez geunkala baztertzen dogun, bestean baztertu zear. Izan beitez itz oneik gure antzerki-idazleak eta antzezleriak indartzeko ta adoretzeko.

OLAZAR'tar Martin'ek

TXINDORRA

ta

KUKUA

Txindorra txori txikia da, baiña bai polita!

Papu gorria dauka, ta buru baltza.

Txindorra gizonen laguna da. Neguko otzetan gure mendi ta soloak edurrez beteten diranean, gure etxeko ganbaran egiten dau abaro. An aurkitzon ditu bear alango berogarria ta garau gizenak.

Txindorra txori kantaria da. Eta eguzkiak solo-mendiak argitzen ditueanean, ganbarako leiottillatik egan, aurreko aretx tontorrean jarri, ta txiruli-txiruli emoten ditu ordu luzeak.

UDABARRI

Eta etorri zan, noizbait, udabarria.

Zoratu bearrean jarri zan txindorra. Ez zan gau ta egun aspertzen, kanta ta kanta, beti.

Etxe aurreko sagastia zan aren atsedean ta atsegin-leku. Bertoko sagarraren adarraren puntaren puntan katurik, bazter guztiak alaitzen zitu, txirulika...

Aren txinta alaiak maitemindu, ta laster etorri jakon bear eban laguna, txindor-eme liraiña.

Arin asi ziran biok bat, iñon egozan bedar-izpi, zotz eta oroldio billa. Aretx-enbor baten zulotxoan egin eban euren abia. Eta iru arrautz txiki ta nabarrez jantzirik agertu zan, andik laster, abi txikia.

Arrautz-gaiñean emoten ebazan txindor-amak bere orduak. Eta zugatz-gaiñean txindor-aitak, txirulika beti.

KUKUA

Une berean zabaldu zan basoetan kukuaren sorgin-kanta be.

Poztu ziran zaarrak: kukutik-kukura, beste urte bateko bizia eukiela koan...

Poztu zaran, euren sakeletan bost ogerleko eukeezan, txiroak: urte osoan diruak ez eutselakoan utsik jegingo.

Poztu ziran maiteminduak: euren maitasuna laster loratuko zalakoan...

Poztu ziran umeak bere: laster kuku-abitan asiko ziralakoan...

Entzun bai, baiña ikusi ez: ez eban iñork iñun kukuaren egorik ikusi, ez aren abirik topau. Nundik-nora ete ebillen sorgiñezko txoria...?

KUKUAK ARRAUTZA ERRUN

Pozik ziarduan, bitartean, txindor-ama bere arrautzak berotzen. Eta noizean bein laguna egoan adar muturrera joaten zan, eguzki-billa.

Baiña, andik abiratu zan baten, beste arrautz andi bat topau eban bere abian.

Arritu zan txori-ama, benetan arritu: «nundik-nora etorri ete jat olango arrautz galant ori? Dana dala, neure abian dot bai, eta neuk berotuko dot».

Arrautzok euren azala, noizbait, galdu, ta txorikumeak agertu ziran-ean, amaitu ziran txindorraren atsendena, amaitu atsegiña, amaitu kantak...

Txori-aita ta txori-ama, eurok biok batera, be, ez ziran lau kume areek

janaritzeko lain. Areen batera ta bestera ibilli bearra!

Laugarren kuma buru-andi a zan batez ere asekatx. Ao-zabalka egon beti. Eta txori-ama gaixoa mokotxc a kokoz baterik ebala etorreanean, berealako baten altzau, ta rau!, arrapatzan eutsan guztia. Bildur bere ba-zan txori-ama, ez ete eban bera be iruntsiko, alako batean.

KUKU-KUMEA, BAKARRIK

Bere mokotxoak kokoz beterik etorren bein, erdi utsik topau eban txindorrak bere abia: kuku-kpmea egoan bakarrik, bere ao-andia abalka.

Kumeak anditu-ala, txikituz joan zan abi-zuloa. Eta azaldautzen asiak ziran txorikumeak alkar-bultza, zipo ta mokoka...

Ta, jakiña!, kuku-kume koko-lapikoak irabazi dema: irabazi ta lagunak abitik jaurti!

Gure Txindorraren naigabe ta oiñazea...! Lengotan jarraitu eban, alan bere, txindor zoribakoak: kokoak batu ta batu. Lengotan jarraitu eban kuku-kume babalastoak be: txindorrak batutakoa iruntsi ta iruntsi...

* * *

Ba-dago ta ba-dabil geure euskal lorretan be, bestean abian azi ta bestean lepotik bizi dan ainbat kuku babalasto ta berbalapiko...!

Ez gaitezkan, baiña, larregi kezkatu...: «Sanjuanetan, kuku; Sanpedroetan, mutu».

ESTONBAT'tar Manuel

LARRAKOETXEA, ABADE EUSKALDUN (ONAINDIA'tar Alberto'k)

Adiskideok:

Aita Benitto, eldu da zure eguna. Zuri be adiskideak omenaldia egin gura izan dauztue. Eta emen gagoz, orretarakoxe etorri gara. Bear ba'da, naiago izango zenduan zuk zeure gelan, isil eta bakean, egotea, zeure barkatadetik urten barik. Baiña, lekaide on bezala, zu beti bizi izan zara agindupean eta ba-dakizu besteen itaia beteten. Gaur gure guraria egiten zagoz. Esker bero bat.

««««

Undurraga auzoan, «Altzagutxi» base-rian jaio ziñeen zazpi neba-arrebok. Eusker-a baiño ez zenduen entzun zuen jaiotetxean. Oso polito diñosku zure anai Ipolito karmel-darrak. Entzun: «Nire euskal irakaslerik le-lengoak eta onenak, ama ta amt,ma (izan ziran). Ez bata ez besteak ez eklen erderarik arean be. Baiña gura eben edozl; esateko ez eben erderara jo-bearrik asmetan. Ezta, erderarik ez ekielako, isildu-bearrik be».

Ze zakona dan oar au. Barru-barrutik ur-teten eutseen eurailbear ebezan itz barriak.

ZEANURI'KO UDALAIZ ETA PARROKIAK, «EUSKERA-ZAINTZA»'REN LAUNTZAZ, LARRAKOETXEA'TAR BEDITA AITARI OMENALDIA EGIN DAUTSOE. PLAZAN EGIN ZIRAN IRIJ ITZALDIA AGERTZEN DOGUZ «ZER»ONETAN. ZORIONA SHAKESPEARE'REN ITZULTZAILLEARI!

AMA ALBERTO ONAINDIA (Padre Olaso) OMENALDIAN.



ZEANURI!

ARTZAIÑEN
BASERRITARREN
LANGILLEEN
LEKAIDEEN
LEKAIMEEN
ABADEEN

ETA IDAZLEEN ERRIA!

**OMEN EGIEZU
ZURE SEME**

OSPETSUEI

Zure erria zan, Euskalerrri guztian abac lekaide ta lekaimerik geien eukana! Ez a aste gaur bardin izango danik.

««««

Zure anai aita Ipolitto, Karmeldarra, n, erri maite Markiña'n il zan eta antxe da) obiratuta. An izan nintzan, erbestetik etor eran bere illobian otoitz egiten.

Irakurriko zenduen, ziur nago, Aita Ipc to'ren lantxu batez. Aita Moriones karm, darrak idatzi dauan liburua. Bere izen bur «Euzkadi y el Vaticano 1935-1936». Pari ko Nuntzioak, gure diputatuak Erroma egin eben ikustaldiaz argi-bidea eskatu etan. Egia esateko, gure Diputatuak ez zir ibilli Erroma'n guztiz egoki. Ba, neuk eskE neuntsazan Aita Ipolito'ri Erroma'ko rriak eta berak bialdu eustan idaz-lanetik baita Agirre Lendakari, Irujo Don Main eta Landaburu Xabier'ek be bialdu euste, netik antolatu neban Nuntzioari emon ne tsan argibidea.

Nire paperak beste baten eskuetara jaI ziran eta berak argitaldu ebazan. Morior aitak, emendik artuta, emon dausku libu) txu ori.

Zeanuri'ra oraintxe iru urte etorri nint7 Manterola Gabirel ikustera eta orduan azI nengoz itz egin neuntsan. Gero Itzaldit bat egin neuntsen ementxe Zeanuri'ko g, teeri, don Martin Olazar'eri eskerrak.

Eta zutzaz zer, aita Benitto?

EGITARAUUA

10,30'otari: Andra Maria'ren eleizan, MEZA NAGUSIA

- Meza-emoiile; Bedia aita ta abade- Lagunak.
- Bertsolariak.
- Dantzariak.
- Txistulariak.

12'otari: Udaletxeko Ekiniza-Aretoa, ITZALDIAK.

- "Larrakoetxea'tar Bedia aita, abade euskaldun"
Izlaria: Onaindia'tar Alberto Jauna.
- "Larrakoetxea ta Shakespeare"
Izlaria: Onaindia'tar Santia aita.
- "Zeanuri'ko Idazleak"
Izlaria: Olazar'tar Martin Jauna.

Ordu bietan: Omenaldi'ko bazkaria.



Omenaldi au Zeanuri'ko Udalak eta Parrakiak, Euskera-
zaintza (Euskerearen Erri-Akademia), ren laguntzaz eratu dabe.

ETORRI GUZTIOK

Berrogei ta bat urte igaro dira alkar eza-
gutu genduanetik. Ingalaterra'n izan zan.
Southampton'go St. Edmungo'ren elizan. Bi
egun aurretik eldu nintzan ni ara eta lenengo
igandean joan nintzan lenengo mezara. Zeuk
Meza eta zeuk itzaldia. Garillaren 23'a zan.
Arrituta geratu nintzan. Gure aita Benito in-
gelez itzaldia egiten, erriko eleizarik aundie-
nean. Zuk ordurako ingelez izkuntza barru-
barruan zeukan.

Eta gogoratzen zara biariko egunez, biar
berrogei ta bat urte, dagonillaren 17'an, nora
joan gintzazan?

Isle of Wight'era.

Zelako egun alaitsua igaro genduan biok!
Goizetik Southampton'erako trenan artu, Li-
minghton'en aldatu eta gure aurrean gizon
bat jarri zan, zuri begira, zugiandik begiak
kendu-eziñik. Bear ba'da, orientalen bat zi-
ñala uste izango eban.

Nungoa ete zan gizon au? Ingelezen kolo-
niaren batetik etorria?

Eta, bat-batera baimenik eskatu gabe
zas!, lenengo batari, zuri, eta gero niri, af-
gazki bat atera euskun bioi. Parka eskatu
euskun eta... egun batzuk geroago neuk artu
neban argazkia. Zuk ez ba'daukazu, gaurko
egunean zuri emoteko asmoz kopia bat eka-
rri dautzut. Ezagutzen ete dozu zeure bu-
rua? Benetan gomuta ederra. Biar berrogei
ta bat urte!

Zelako poza, zelako alaitasuna, egun are-
tan. Aurreko urtean an ibilli ziñan zu gure
umetxoeri lagun egiten. Gure umetxu erbes-
tetuak! Zenbat eta zelako oroipenak! Iñok
ez ditu idatzi. Emen ibilli da aruten aita biz-
kaitar baten Kalifornia'n jaiotako alaba bat,
Legarreta'ren emazatea. bost seme-alabaren
ama, eta filosofiko «doktora» euskal ume-
txuen barriak batzen etorrita eta barri asko

batu ditu. Urte bi edo iruren barruan gai
onetzaz liburua argitaratuko dau: Euskal
ume erbestetutaz. Zuk ikusi dozu nire ustez
emakume ori.

Goazen barrero be Isle of Wight'era. Egun
aretan Vitoria kaiser-andre edo «Empera-
triz» a il zan etxea ikusi eta España'ko Erre-
gin Vitoria Eugenia'ren jaiotetxea igaro ta
gero, gauzak aldatu egin ziran. Bat-batera!
Zer edo zer susmatu genduan aizean bertan.
Jentea bata besteari izketan eta... gudariak,
gudariak ugari! Guda ei dator) esan eus-
kuen. Robentrop eta Molotov'ek Hitler eta
Stalin'ek alkartzea izenpetu eben eta erri
guztietan guda-zaratea entzuten asi gi-
ñan. Guk biok, lenengo gudariak Isle of
Wight'en, biariko egunez ikusita genduzan.
Gero ba-dakigu zer etorri zan: Guda, ludiko
eta edestiko gudarik aundiena eta bildurga-
riena.

Egun batzuk geroago, zu Ameriketara
joan ziñan: Uruguay'ra ta Argentina'ra.
Franco'k bialdu zinduzan ain urrinera eta
berari eskerrak, gaur Shakespeare euskera-
tuta dauk.igu. Franco izan ez ba'litz, bear
ba'da, emt n egongo ziñan, Oñati'n edo Alsa-
sua'n latir eta eladeraz irakasten. Zure na-
gusiak ez ziran oartu zure deia, zure bokazi-
ñoa, ez zala irakasle txiki izatea. Agintari
batzuk uste izaten dabe, batez be abade eta
lekaide-lekaimeen artean, nagusiak agintzen
dauana Jainkoaren naia dala. Besterantz
uste bear leukee, Jainkoaren guraria izan
bear dala euren naia. Zure nagusien artean,
zu irakasle ez-ezagun bat izango zintzazan.

ZEANURI'KO ELEIZEA ORTXE ASI ZAN
BEDITA AITAREN KRISTINAU-BIZITZEA.



Eskerrak Franco'ri, erbestera, u'rriñera,
urrindu zindualako.

An, biotz illunez, naigabez zengozan zu
Euskalerritik urrin.

Unamuno'k esan eban egun baten: «Me
dule España». Zuk be esango zenduan or-
duan: «Euzkadi'ren miña daukat». Biotzeko
nekea, barruko samintasuna. Zeuk esan
zeunstan egun baten: I Alberto'n naiagoan
Salta'ko Laterandarren Irakastetxean, boitz
illunaz, eusko moñaz eta min ori aztuteko
asi nintsoan Shakespeare'ren lanak euskera-
tuten. Bat egin, eta gero beste bat, eta gero
irugarrena... Geldi-geldi zure barrua berot-
zen asi zan. Ez zenduan buruan eta biotzean
beste ardurarik: Shakespeare euskeratu!

Lan onek, asmo onek beteten eban zure
izate guztia.

Bai, Franco'ri eskerrak eta baita zure pi-
peari be! Pipa barik zuk ez zendun egingo
egin dozun Ian miragarria! Berak berotu, be-
rak zure biotz jaso, berak keagaz argitu
zinduzan baten baiño geiagotan.

Gaurko omenaldi au, baita 'eure pipea-
rentzat be ba-da. Ezin neinke . uik asmatu
Don Benito pipa gabe. Or zagoz argazkian,
bear dan patxaran pumatzen, odeiak egiten,
baketsu, barruko argia ondo bi;tuta.

Jakiña ba, zuk beste lan baduk be egin
zenduzan: Mezea esan, itzaldia egin, au-
tortzeak entzun, b teoak emon, gaisoko
ikertu, illak illobira eroan, gizon guztien alde
otoitz egin eta zure nagusien esanak egin,
euren esanak entzun eta euren menpean bizi.
Baiña zu emendik aurrera, urte askotara, mi-
lla urtera, zuk euskeraz egin dozun lanagai-
tik ezagutua izango zara. Lan ori ez da gi-
zon batek egitekoa, talde batena izan bearre-
ko lana baiño. Zure izena beti Shakespeare'-
ren izenaz batuta joango da euskaldunen ar-
tean.

Aita Santi onaindia karmeldarrak, zuk
euskera larritasunean ikusi zendualako lan
au egin zenduala diño. Euskera larritasuñean?
Bai, egia da. Baiña baita zeu be barruko
tristura ta larritasunean aurkitu zintzazan.
«Felix Culp», esan geinke geuk be. Eske-
rrak Franco'ri, eskerrak zure erri-miñari,
gaur aberats gora zure idazlanarekin.

Zure euskera ederra Bizka'koa da, obeto
esateko, Zeanuri'koa. Entzun zer diñoan
aita Santi'k: «Norbaitzuek auxe egotzi lei-
keo: Lan lekukoa dala, eta Arratia'ko izke-
ran egiña dala, euskalki guztietako itzik eta
esaerarik asko daukazan arren. Baiña txoko-
kegi izatea ortatik erreze atera daikegu ez
dala alde aundirik Euskalerriko alde batetik
bestera».

Aita Benitto! Amaitzera noa. Zuk bizitza
betea euki dozu, eta Jaunari eskerrak! Gure
erriaren alde lan aundia ta ederra egin dozu!
Zuri eskerrak! Kardaberaz Bazkunak argi-
taratu ditu liburu oneik. Bere buru diran la-
gunai be eskerrak!

Eta danoi agur bero bat!

Larrakoetxea ta Shakespeare

(Santi ONAINDIA'k)

Emen daukaguz gizon bi: Shakespeare ta Larrakoetxea. Bata ingles teatru idazle azkar errimea ta bestea giza-seme argi ta trebe orren teatru-lanak, osorik, euskeraz ipiñi dituna: Aita Benito Larrakoetxea, bertoko seme zintzoa. Eta besterik bage, sar gaitez lan-arloan, teatru-egilearen gurentasuna ta itzultzailearen azkartasuna zerbait azaldu ta adierazoaz.

W. SHAKESPEARE

Gizaseme Qrrime baten aurrean gagoz. Amaseigarren gizaldi aren azkenaldirantza ta amazpigarrenaren lenengo urteetan engelandar andikiak, eta baita erria be, bere erti-lan gain-gaiñeko ta ezin-obeakaz alaitu ta eskolatu zituan Shakespeare'k. Arima-munduak ditun egite ta zergaitien barru-mamiña agiri-agirian jarten dauskuz, iñok ez bezela, samur eta gogor; gauza ezkutuen eta giza-arimaren ikuskizun zabala ondo argi agertzen dauskuz begi aurrean.

Gaztetxo zala bere berezko senari jarraituz eta teatru-talde bateko egiñik, antzolatzaile idazten asi zan, barruan borborka lez Croian leian askatasuna emonaz. Eta laster, amar bat urteren buruan, jenteak maiteen eben teatru-idazle biurtu jakun. Eguzki barri bat sortu zan .Inglaterra'-ko zeruan, odeiak uxatu ta biotz guztiak gar-erazoz: errege ta erregeña be, lilluraturik, aren antzerkiak ikusten joiazan. Pizkaka-pizkaka, ederrez eta egiaz orrela dardar-azo eban Londres alde guztia, ogei urtez beintzat. Eta gero gerokoak, aren izena bada, gaur be, zabal ta nasai dabilkiguna da.

Teatrugille auxe dogu, izan be, ortan langillerik gorenengoa; gerkarrak baiño be pentsamentuz sakonago, ta

nor-izakeraz ugari ta aberatsago. Goethe ta Schiller be, ba-leiteke Lirikuagoak izatea, baiña ez sakonagoek. Bizia-aren ispillu izan bear dau kornediak, trajedi naiz dramak, onari bere-berea dauan arpegia igarri ta adierazten dakiana. Antzerkiak, zuzen jokatz, kotan, bere elburu gurenari dagokionez, giza-bizia antzeztu bear dau bere artu-emon guztietan: munduaren kondaira ta istoria antzeratu bear dau bizi ta egoki. Eta lan au, egia esan, munduko literaturan ezta oindiño iñor agertu Shakespeare'k baizen bizi, egoki ta giartsu osotu dauanik. Asko-askoren eritxiz be-rau dogu munduko teatru-idazlerik gorengoena. Miresgariak dira aren lanak.

Gaia aukeratzen mutilla dogu Shakespeare. Gai orren inguruan sortutako notin edo pertsonak maixuki mugatu ta bizi-bizi antzera giñak dagoz; ez dira itxura utsak aren iduriak, bakotxak llau bere bizi-moldea; buru bakotxak azkar agertzen dau nor dan egiaz ta biziaz beterik bait dagoz. Aren asmapenak aragitu dauzan pertsonajeak, zer bakotxak bere lekua artzen dau ingurukoakaz nastu ezikeño era zoragarrian. Eta guzti au errekan beera doan uraren antzera, ez idazlea ez ikuslea, igartzeke.

Notin edo pertsonaje onei gagokiezala, onela idazten dausku Larrakoetxea'k berak: «Eladetar eta Erromarren olerkietatik biztu izango jakon, Shakespeare'ri ederrerrako goze-egarri ase-eziña ta ludi au ederrez beteago egiteko gogo bizia. Amaikatxo irudi notin itzalezko ederto antzeztu izan dauskuz gure olerkariak. Urteak dira au il zala, baiña onek antze tuko irudi-notiñok ez dira ilgo gizadiak ludi onetan diraeño. Notiñok ez dira zartzen, beti diraeu gordin, gizonen seme-alabak belaunik belaun legetxe. Shakespeare'k il-ezin eta zar-ezin sortu ebazan-eta».

Eta izkera? Guri, barria dau, gatz-ozpiñez pikortua. Berezko jario oparo onen ostein, or datorkigu bere antze edo arte taiuketa gorengoena. Antzerkiak eder, oso ta gioraz, egiten ez dau oraindik parekorik izan. Shakespeare-e'n lan bakotxa, bete osoa dogu: norki bakotxak lan guztia, era ta modu erabatekoan, azkeneraiño eroanik.



ZEANURI'KO PLAZAN: AITA SANTI ONAINDIA BERBAZ.

Labur esanda, arek osoturiko teatru aberatsak, indar berebizikoa dau. Giza barrua lau ertzetatik ezagutu eban; aren antzez-notiñak, giza-berbak eta esaerak ain ederto mainduz gaiñera, ikur eta giburu egiñak geratu jakuz: Hamlet'ek, esaterako, dudamuc'.a esan nai dau; Macbeth'ek, gora-naia; Otel'ek, barruko kezka; Erromi ta Yulitxu'k, maitasuna; Shyloch'e , zikoizkeraria.

AITA BEDITA LARRAKOETXEA

Eta Ian eder oso onen itzultzaile, edo Ian aundi, oparotsu au euskeraz ipiñi dauskuna Aita Larrakoetxea dogu, emengoxe semea, Zeanuri onetan jaio ta gaur geure artean daukaguna, gizaseme argi ta langillea.

Ez uste itzultze-lana erreza danik. Onako idazle aundi baten lanak batez be euskeratu, bear diranean. Shakespeare'k ingles apartekoa dau, labur, oparo, mamintsua, esaera ederrez josia, eta guzti ori ganoraz euskeraz jartea naitaez aldatz-gorako lana dogu. Eta alan da guzti be Larrakoetxea'k, eragozpen guztiak gainditurik, amaira eroan dauan lana. Arrigarria ta guztiz txalogarria burutu dauana. Omenaldi au, auxegaitik bakarrik, ondo merezia daukala deritxat.

Larrakoetxea'k egindako itzulpen-lan aundi, eskerga ta berezi au, bost liburu aunditan argitara emona dogu gaur, Kardaberaz-Bazkunak argitaratua nunbait. Bost liburuok Shakespeare'n lanok dakarrez: I. 1) Ekatxa; 2) Berona'ko Gizazindo bi; 3) Windsor-ko gogaldi oneko emazteak; 4) Neurriri neurri; 5) Okerreko usteetatiko barre-antzerkia; 6) Utsagaitik , utsak ots; 7) Galdurik maitaketa-nekeak, eta 8) Uderdiko gau-ames.—II. 1) Binixa'ko salerosla; 2) Zeuk zelan nai; 3) Basatia ezita; 4) Ondo dator azken onik dauan oro; 5) Amabigarren gaua: naiz, zeuk zer gura; 6) Negu-ipuin.—III. 1) Yon Bakaldu-

na; 2) II Errikarta bakaldunaren bizitza ta eriotzea; 3) IV Endika Bakaldunaren lenengo atala; 4) IV Endika bakaldunaren bigarren atala; 5) V Endika bakalduna lenengo zatia; 6) Seigarren Endika bakaldunaren bigarren zatia; 7) Seigarren Endika bakaldunaren irugarren zatia; 8) Irugarren Errikarta Bakaldunaren bizitza ta eritzea, ta 9) Zortzigarren Endika bakalduna.—IV. 1) Erromi ta Yuletxu; 2) Lear errege; 3) Otel, Binixa'ko mairua; 4) Atenai'ko Timon; 5) Macbeth; 6) Hamlet, Danemarka'ko Erre seme; 7) Toril eta Kerside.—V. 1) Kinbelin; 2) Yuli Kaisar; 3) Andoni ta Kelopatere; 4) Koriolan; 5) Tita Andornika; 6) Perikel Tiro'ko errege.

Sail bikain-bikaiña ikusten dogunez. Ogetamasei anaitzerki, drama ta trajeri guztiz. Au ezta gero autzaren gaberdiko eztula, lan zailla ta gogorra baiño. Zeanuri ontako seme kementsua, alan be, gauza zan ortarako, ta bape nekatu barik azkeneraiño eroan eban. Bostgarren liburuari itzultzaileak egin eutson sarreratxoan, onela diñosku: «Yaletako soñeko lirain, dotore, txairo, orratzetik arakoz jaxten dauz Shakespeare'k bere bulko, pentsamentu, biotzaldi ta irudi zoragarri-arrigarriak ingalanderaz. Au onan dala egoki ete zan ba, aren olango lanak euskera baldar-traketsez emotea?» —Olan ba, darrai: «euskera jatorrez, al izan dodanik liraiñen, dotoreen, txair Sen eta txukunenez euskeraztu dot Shakespeare, irakurrk.go ta zoragarriago, atsegingarriago egiten jakun Shaken eare».

Itzultzaileak din ona egiztatzeko, bere itzulian sa il batzuk irakurriko neuskizuez, baiña luzatu egingo nintzateke geiegi. Gogora daiguri aux: Gorbeia'ra igoteko, bein bidea artu ezker, gorantz egin bear dala, iñoiz be aspertu barik, gaillurrari gaiñak artu-arte. Onelaxe egin izan dau Larrakoetxea'k.

Itzultzaileak diñona egiztatzeko, bere itzulian sa il dira aurretik: nobere izkuntza, guk euskera, ondo jakin eta gero itzuli bear dan izkuntzaren naasmaas eta triki-mailu guztiak ezagutu. Gure gizonak, umetatik eta gero, ondotxo ikasi zituan euskeraren barren-korapilloak, baita Shakespeare'ren izkerak bereak ditun legeak be: izango ebazan ezipairik bage bere buruko miñak aren biurrikeriak euskeraz emoteko; baiña bere trebetasunari esker, aurrez-aurre izan dabegan eragozpen guztiak azpiraturik, biurkera oso-osoa egin euskun. Euskera ederrez datorkiguz antzerki danak. Iztegi ugaria, esaera apaiñak, euskerak berebrea dauan joskera.

Shakespeare'ren antzerkirik geienak bertsoz dagoz, bertso errez, garbi, ta ariñez egiñak, neurria, etena ta azkena txit arduraz zaindurik egiñak. Larrakoetxea'k itz lauz edo prosaz damoskuz aren lanak; orrek ez dautso ezeren meriturik kentzen, irakurle geiagorentzat errezago ta askeago egin baiño. Lan eder au bearrezkoa zan gure literaturan. Emen, gaur, guztiok opa genduana egi biurtuta; beraz, gure omenaldirik bero ta bioztiena zor dautsogu Ian orren bikaiñez euskal literatura jantzi ta apaindu dauskun gizaseme zintzo langilleari.

A. ONAINDIA

ZEANURI'KO IDAZZLEAK

(OLAZAR'tar Martin'ek)

JAUN- ANDREOK:

Zeanuri erri-jakintzaren arloetan aberatsa ta jakingarriz bete-beta da, baiña erri-jakintza onek berez-berez daroa gizon jakitunen jakintzara. Orregaitik, erri onetan idazle trebeak eta asko izan doguz. Ona emen itzaldi laboru onen gunera beingo baten sartuta.

Gure idazleen artean zarrena Urraburu aita izan genduan. Berari eskiñra dogu erriko enparantza edo plazea, baiña Zutzute'n jaioa dogun idazle jakitun eta ugari onek dana latinez idatzi eban, bere liburu asko ta aundietan ez daukagu euskeraz itzik be, orregaitik ezin dogu sartu euskal idazleen artean, zori txarrez.

* * *

URIARTE TA ODIOZOLA'tar
Martin aita

Auxe dogu gure idazlerrik zarrena, 1879'garren urtean, Ipiitaburu'ko Matiaritu basetxean jaioa. 1960'garren urtean íl zan.

Nork ez dau ezagutu aita Martin gure pulpituetan izan dan'sermolarirrik adoretuenetarrikoa? Nok ez ditu bere berbaldiak entzun? Eta zenbat senditan eskiñi ete eutsoen berak ainbeste maite eban akeita, kafe gozoa!

A ita Martin ez zan sermolania beste barik, aita Martin idazle on eta punterengoa dogu. Bere idazlanik ederrenak EGI BIRIBILLAK eta BASERRI-GAIAK dira. Bere itzaldiak be idatzi egiten zituan eta gero buruz bota. «Karmen'go Argia» aldizkariaren sortzaille ta 1931-1933 zuzendari izan zan eta emen idatzi zituan esandako gai bitzuk.

Ba-ditu beste idazlan batzuk be:

- Ume Jesus'en Teresatxu zorundunari bederatzirena (1923).
- Karmen go Andra Maria'ni bederatzirena ta asteroko ikustaldia (1924).
- Loretako illa (A rgitaratu barik).
- Egi biribillak (Karmen'go Argia'n)
- Baserri-gaiak (Karmen'go Argia'n).

Ikusten danez, beti erlejiño gaiak, erriko arazoakaz alkartuta.

* * *

ETXEZARRAGA TA
ARTIÑANO'TAR
BIZENTE «ZIDORRA»

Alzusta'ko Elleuni'n jaioa dogu au, 1891 'garren urtean. Bere senideak emen Plaza-inguruan be ondo ezagunak doguz. Zeanuri'n bizi izan zan, baiña guda-ostean alde egin-bearra izan eban eta Arjentina'ra joan zan eta 1969 garren urtean il zan. Bost urte egin zituan Balmaseda'ko Marrera'ren Biotz Semeen ikastetxean.

Bere idazlanik geienak aldizkarietan agiri dira: Jainko Zale'n. Eki'en. Karmen go Argia'n. Euzkadi'n. Euzkerea'n. Arrati'ko Deia'n.

Geienak itz-lauz edo prosaz eginak dira, baiña ba-ditu olerki edo poesi politikak be.

Zuek gogoan izango dozue gaiñera, erri onetan berton berak egiten eban Antzerki edo teatro-lana. Ori entzun dot, beintzat zuetariko batzuz agotik.

Idazle izanez gaiñera, Zidorra'k politika-lan gogangarria egin eban, Euskalerraren alde.

* * *

LARRAKOETXEA TA
AGIRREZABALA'tar Alejandro

Gaur omenaldia egiten dautsogun Bedita aitaren anaia dogu au, aita Ipolito, mundu guztian ezaguna eta A ita Santuaren uste osozko lagun zana. Goikoetxea tar Iñaki aita zan Atxondo'tarra' buruz itz egitera etorteko, baiña ezin izan dau eta nauk esan bear zerbait.

A ita Ipolito, «Legoaldi» izenordez, Undurraga'ko Altzagutxi'n jaioa da eta gero Atxondon bizi ziran bere etxeokak. 1892'an izan zan bere jaiotza. Orain lau urte il zan Markiñan.

Karneldarren artean irakasle izan zan eta eleiz-legedia zan bere arlo berezia. Gai orretan da mundu guztian ezaguna. Oporraldian Euskalerrira etorten zan beti eta emen Zeanuri'n be igaroten zituan egun batzuk jai

onein inguruan. Emen ezagutu neban etorri-barri nintzala.

EUZKADI. Y EL VATICANO oraintsu argitaratu dan liburuan agertzen dira berak Erroman gure Erriaren alde egin zituan lan eta ibi emengo erri-arduradunak A ita Santua ikertzera joan ziranean.

Bere eleizlanak ain ugari ta sakanak izan arren, ez eban inoz itzi euskal idazle izatea.

Bere idazlanak:

— A Idizkarietan: Euzkadi, Euzko, Euzkeltzale Bazkuna, Euzko Euskal-Esnalea, Karmen'go Argia.

— ELEIZ-ARA UDIAREN itzulpena.

— Simon Bolibar'eri buruz berbaldia (1922).

2 eamuni'ko Andra Maria'ren ja'etako berbaldia (1927).

— Euskera batuari buruz txostena (1934).

Idazki oneitatik ezagunena ta geien irakurria, Grimm anaien ipuinak izan dira.

MANTEROLA TA
URIGOITIA'tar
Gabirel (1880-1977)

Guztiok ezagutu dogu gure D. Gabriel abadea: jakituna, biotz-onekoa, eleizko'ra, asarre-gatxa, autor-entzule onartua...

Idazlaritzan lan asko egin eban gure Gabirel'ek, gau ta egun azpeltu barik.

Abade gaztea zala 1914'an Eibar'era bialdu eban eta an guztiz maitatua izan zan eta gaur be ba-da. 1936 'an Ume-Taldeagaz Ingalaterra'ra joan zan eta 1948'an etorri zan Euskalerrira, Zeanuri'ra.

Euskaltzaindiaren sorizean kideko izan zan eta gero urgazle eta omezezko bazkide.

Aldizkarietan agertzen dira bere lanik geienak: Jaungoiko-Zale'n, Ekin'en, Euzkadi'n, Zeruko Argia'n, Yakintza'n, Argia'n, Karnel'en, Oleri'n, Redenron'en, Agur'en.

Umeen Kristírvau-/kasbrderako liburuak argitaratzen be lan aundia egin eban.

Bere liburuak:

- Jaungoiko - Zale'ren eguneko /tzaldra (1920).
- Goi-1 zprak (1920).
- Lenengo euskal-egunerako itzaldia (1922).
- Porzrunkula Nekazka (1924).
- Santuen bizitza laburrak (1925).
- Ipu'ntxoak (1929).
- Agirre euskeltzale (1934).
- Goi-lzparak.
- Jesu-Kristo'ren Nekaldia.
- Gabonetako antzerki Yaunkoia.
- Gotzai-Idazkiak.
- Irugarrengoen irakaslea.
- Itzulpenak: *Lecreq'en* Moral cristiana; *bere La vida de Cristo en su Iglesia*; *Gustavo Thils'en* Cristianismos y cristianismo; *Lovaina'ko Estudios Pastorales'rik* El hombre n ievo; *Dom Marmion'en* Doctrir a espiritual *Thibaut'ena*; *Fenom unos fisicos del misticismo Thurston'ena*.

Manterola olerkaria *De ba-zan eta aldizkarietan agertu dira bere olerki asko.*

LARRAKOETXEA TA
AGIRREZABALA'tar Bedita
(1894)

Gaur omentzen dogun eta emen gure artean daukagun aka Benito. Idazle ugari ta ekinzailen. Baiña ez dago geiago ezer esan-bearrik Aka Santi'ren itzaldi jakintsua ta sakona entzun ondoren.

* * *

ATUTXA'tar Juan (1899)

Undurraga'tarra dogu eta ezaguna. A gustin Intxaurbe'ren ikaslea izan zan an. Gero jesuita sartu zan. Durangon eta Kolombia'ko Barrankilla'n irakasle izan da.

Bere idazlanak:

- «Bai edo ez» aldizkarian.
- Gogo Yardunek.
- Euskal-Aditza, oraintsu argitaratua.

* * *



INTXAURRAGA'TAR SABIN, ZEANURIKO ALKATEA,
OROIGAILLUA EMOTI N.

GOROSTIAGA TA
ETXEBARRIA'tar
Eulojio (1904-1932)

Ona emen beste idazle on eta lan bat.

Zeanuri'ko Masntalen'en jaiioa dogu, abode Nafarrate'n eta Yurreta'n; 1929'an Arratia'ko A reatza'ra etorri zan eta ementxe it zan ogei ta zortzi urtekoa zala.

Barand'aran'en laguntzaille izan zan.

Aldizkarietan be idatzi eban: *Euskalerriaren aide'n*, *Jesús'en Biotzaren Depa'n*, *Jaungoiko Zale'n*, eta *Ek'n'en*.

Lau liburu idatzi zituan: *Jesukristo'ren nekaldia*, *Sakramentu Deunaren Domingo aba*, *Jesukristo'ren bizitza umeentzako*, eta *Autorkuntza edo konfesiñorako gertaera*.

Baiña Masmalen'go abadeak arratiarrentzat beste garrantzi bat be ba-dauka: Arrati'rako aldizkari bat ateraten eban berak? A RRATIA. '(O DEYA. Urte bitan urten eban eta lau orr'iak/ekoa zan, illerokoa, eta gaiak: erlejiñoa, kulturea, ta olakoak, erri-maillan.

GAURKO IDAZLEAK

Zeanuri'n ez da amaitu idazterako zaletasuna. Gaur be ba-daukaguz idazle harriak.

Orue'kc Beob'rd'e'lar Jose Luis aka gogoratu hearco dogu lenengo. Laster izango dira zuen eskuetan berak batutako ipuin poll' eta egokiak. AI be agertu dira aita Jose Luis'en Ian batzuk.

Lezea'ko Etxezarraga ta Zulua-ga'tar Jesus Antonio dogu gaur Zeanuri'n eta idazle lez itxaropenik aun emoten daukun idazle to olerkari. Beste olerkari on eta eldu batzun artera sartu eta lenengo saria ateratea ba-da itxaropena sortzeko bidea. Eta ori egin euskun gure Lezea'tarrak Laukinis'en izan zan Lauaxeta sariketan.

Ba-dagoz gure errian beste idazle asi-barri batzuk be: Iturtza'ko Josu Astondoa, Intxaurraga'tar Sabin eta Koldo anaiak, Laubreabe'ko Iza'tar abode barria eta beste asko. Eta euskerea ikasten gogotsu diarduenak be bai. Baiña gaurko gure gazteen artean idazteko bildur aundia dago, edo batua -ezbatua'ren arazoagaitik, edo txarto idazteko bildurragaitik, edo ez dakit zergaitik. Adar'e-^m bertez gure gazteak eta idatzi, Tvarto dagoana, asieran, zuzenduko jake eta laster ikasiko dabe ondo idazten. Gure Euskalerriak idazle gazteak ugari ez ba'ditu, here euskerea !a euskaltasuna galdu egingo ditu eta or' ez dogu nai. Egin dagigun Ian, or" jazo ez daiten eta orretarako, idntz', idatzi asko ta undo.

ARRIETA, ITSASGIZONA

ITSASOA TA EUSKALDUNA

Mendiak eta itsasoak gatzatu daua auskaldunen izakeeara, esan dau norbaitek.

Ez dira ez euskal mendiok orren andi; baiña bai, trokatsu. Eta gure mendi onetako basobaltz, meatz eta solo lakarrak egin dabe langille bizkor euskalduna.

Ez da gure Kantauri itsaso au orren zabal; baiña bai, asarre ta zakar. Eta itsaso gogor onek egin dau ausartsu ta errime gure itsasgizona.

Alako asko egin izan dira ots andiko, ta kondairak gorde ditu euren izenak. Guk be az aldu doguz euren egintsariak atal onetan. Zenbat eta zenbat baiña, itsas olatuak, inungo erreztetik itzi barik, iruntsiak izan diranak...!

BALE ARRANKETA

Ez da sekula orrelako arranketa andi ta aberatsik izan! 150.000 kilo bai, izan oi ditu itsas-abere onek. Eta dana dauko on: okelea, koipea, burua, muña, bizarra eta azurrak...! Onen koipek bak arrik 2.000 urre-dukak emon oi eban, orain irureun urte; 200 langillen urtesaria zan ori.

Obari indiko arranketa...! Eta arrisku andiko arranketa...! Balea ikusi orduko, or doaz aren ondolik amairu gizon; alango amabi arraunketan, eta arpolaria txalupa muturrean tente.

Eta aren alboan dagozanean, or jauritzen dautsoe arpoia burura, zuzen. Urpera doa balea, arpoiaren sasta sumatzean, eta dantza izugarria daragio txalupari, tirabiraren arrisku gorrian.

Arnasa artzera noizbait az aldu, ta arpoi barriak sartzen dautsoz arpolariak. Eta or asten da sekulako borroka gogorra: gizonak piztizarra amaitu nai, ta piztizarrak gizonak urperatu nai...

TERRANOBA'KO ITSASOETAN

Gure itsas-inguruko baleak XV gizaldian gitxituta, areen atzetik joan ziran gure arrantzaleak. Eta euren ibi laldi luzeetan, Terranoba'ko goi-itsaso ozetara eldu.

Bi millatik gora joan oi ziran urtero, andik aurrera; eta eukok izan ziran iru gidalditan, makallau ta bale-arrantzan munduko nagusi. Ainbat nekez irabazitako negusitza...!

Terranoba'ko itsas-ertz eta ondartzak ontzi-ondakiñez beterik dagoz; au da, agian, munduko itsas-illerririk zabalena. Ori zala-ta, Burgds'ko kontsul-etxean ondamendi-aroan sartu oi ebezen euskaldunok euren ontzi ta ontzikoak.

ARRIETA, ITSASGIZONA

Ori bera egin eban Arrieta itsasgizonak be, 1965'an. Ori egin, eta bere erri zan Pasai'ko kaiatik urten zan Terranoba' -arrantzura. 60 gizon eroiazan 30 metro luze ta 9 zabalako 300 upelkadun ontziak.

Jorrailleko azken egunetan eldu zan ugarteko ur otzetara. Ez zan oraindik itsasoko leia urtu, ta batera ta bestera joiazan

izotz-mendiak. Orrela naiko lanez ugarteari bira emon eta «Ba»-ko itsas kolkoan sartu zan. Uga rte ta Labrador bitartean dago kolko ori; eta Monreal uri nagusiraño satzen dan San Lorenzo'ren itasa-adarraren aoa da.

Itsas adar orren zokoan emon oi dabe negua baleak. Eta itsas —leiak urtutzen asiak dirala-ta—, gora abiatu ta itsas andira urten gura dabe oa onen bidez. An dago bitartean, gure Arrieta bere lagunokaz prest. Itsas ontziko lau txalupak jetxierazi, ta erne dagoz bertoko arpolariak baleak noiz agertuko zain.

«Balea, balea...», deadar egin dau ontan ontzi tantaletako begitaleak. Eta arraunketan asi dira txalupakoak. Andik bost ordu barru, bale andi biren jabe egin dira gure arrantzaleak. Unama lodiz ontziari lotu, ta or dakarrez itsasertzera.

Be-laiñoa dago ta atxez beterik bideko urak... ta lanak ditu gure Arrieta'k «Red Bay» izeneko ispaterrera eltzen. Ur-miñ luze ta bareko bazterra..., balea zatitu ta aren ganzak urtuzeko leku egokia...!

ONDAMENDIA

Inditar Kan.alesak bizi ziran ango ertzetan. Sagardoa, burdiñezko aitzo ta aizkorak emon eutsezan Arrieta'k adiskide-zurriari. Laster alkar artu, ta balea zatitzen jardun eben Kanalesak; Euskaldunagaz batera.

Okelak gatzatu ta koipeak urtu, arin bete ebezen milla upel, ta ontzi barruan sartu. Alako gau baltz batean baiña, aize zakarra sortu, ta ontzi-unamak apurturik, aurreko etxetara jaurti, ta urpera bota eban...

Ez zan alan be gizonik galdu. Eta urrengo goizean, aizea baretu zanean, ontziko gaiak salbetan asi ziran. Ez eben baiña gauza andirik atara: euren soñekoak eta koipez beteriko upel batzuk...

IKER-LANETAN

Canada'ko berrogei arkeoloji ta itsas jakintsu ikusi genduzan joandako illean, Red-Bay'ko ertzetan, Arrieta'ren ontzi ori urgaiñeratu gurean.

Itsas-bazterretik eun metrora dago, ta amar metroko urpean. Aren gain eta inguruko lupetza ataraten diardue orain: ondo garbituta gero karramarro andiz oso-osoan goratzeko asmotan. Ori lortzen ba'dabe, au izango da Ameriketean orain arte aurkitutako itsas ondakiiik zarrena.

Bien bitartean, euskaldunak itxitako etxe ta labeen ondakiñak jaso ta aztertzen diardue beste batzuk. Tresna, bustiñezko ontziak ta bale-azurrek eta ondakiñak ugari aurkitu dabez.

Nundik-nora ikasi dabez baiña, gauza orren barri guztiok...?

Gure artxibuetan. Orrelako izen eta barriaz beterik doguz gure Oñate, Tolosa ta Gernika'ko artxibuak. Bardin Burgos, Valladolid ta Sevilla'ko artxibu nagusietan be.

Or doguz gordeta, ondo gordeta gaiñera, gure itsasgizonen «epopeya» nagusia egiteko gai mamintsuak.

Topau egin bear..., orixe!

URKIOLA'k

CUBA

BARRUTIK

(II)

EUSKALDUNEN ITZA

Euskaldunontzat itza emoteak indar aundia dau: itza emoten danean, bete bearra izaten dogu. Gaur, bear bada, aitz» onek ez dau leengo beste indar. Baiña orain urte batzuk itzak notarioaren aurrean izenpetzen zaan paper baten beste balio eban.

Gogoratzea baiña ez dago «Mari» eta «Peru» izeneko Muxikako zuaitz bien aurrean egiten ziran salerosketa eta ezkontza tratuak. Zuaitz onein aurrean ez zcn testigurik bear: itza emotea naiko zan.

Nik neuk be itza emon neuan Cuba'ko enbajadan eta joan bearra sentitzen neuan. Egia esan ez niñoiari nasai, ez. Nire barruan eztabaida neroan: kubatarrek euskaldunen itza eskatu eusten, eta ori eskatzeko bakien gutaz zeozer. Baiña... eta zelangoa ete zan kubatarren itza? Nire ematearen paperak zortzi egunean konponduko ebezala esan eusten. Baiña... onela izango ete zan?

MUNGIA'TIK CUBA'RANTZ

1978'ko abenduaren 6'a zan. Gabon aurrea izan be. Zelan igaroko ete neuzan Gabonakl «Ato, ato, mutil etxera, gaztaina zimelak jatera...» Nire bidea, oster, alderantzizkoa zan: egunik gozonenetan atzerrira. zortzi egun barruan emazteagaz alkartzeko usteak zerbait poxtutzen nindun. Poz igeskor bat zan. Alan nai neuan, izan; baiña ez neuan ain argi be ikusten.

Abenduaren seia. Geienetan lez, aldi luze baten egazkiñari begira izan ostean, urten gendun Madrid'erantz, Cuba'rakoa artzeko asmotan.

Madrid'en Centurion izeneko bulego-
ra jo neuan.

Bulego au gure lantegi eta Cuba'ko eroslearen bitarteko egiten ebana da. Ona eltzean maleta bat eta papertxo batzuk emon eustezan. Azkenengo oneikaz Barajas'en beste maleta batzuk artu bear neuzan.

Egia esan, egun batzuk leenago Cuba'ko Emabajadan gertatutako izan eta gero, ez nintzan ezertaz arritzen. Taxia bera artzen be ez eusten lagungu. Neure maletaxoa artu eta an abiatu nintzan kaleruntz.

BARAJAS'EN

Centurion bulegoan artutako pape-
ra erakutsi ostean, emen beste maleta batzuk eskuratu neuzan. Baiña Aduanan banan-banan danak zabaldu eta erakutsi bearra izfn! neuan. Zoritxarrez «referendum constitucional» izeneko a izan zan, izan be. Eta, bildurak eraginda-edo, zeatz begira

Azkenean, itzi neuzan itzi bear ziran tokian. Baiña Cuba'ra sartzeko paperak barriro poliziarri erakustera joateko deitu ginduezan. An erabilli ginduezan zorotu eraginda batera eta bestera.

AMAR ORDUKO ATZERAKUNTZA

Itxaron, gogaitu, zoratu... danetarikoa izan neuan Barajas'en. Azkenean, arratsaldeko bostetan sartu nintzan egazkiñera. Laster urtengo genduala-ta guztiz nekatuta negoan. Nire asmo bakarra Cuba'ra eldu eta atsedean apurtxo bat artzea zan.

Baiña kubatarrek gu baiña bareagoak dira eta gauzak patxada aundiz egiten dabez: bide ain luzea egiteko atsedena artu bearra egoalako-edo, egazkiñak seirak aldean piztu euzan bere motorrak.

Sei t'erdiak aldean cffaria emon euskuen: arroza, letxuga orri batzuk, tomate zati bat, guriña, ogia eta garagardoa. Jan dalako bat egin ostean, eta egun barruko nekaldiak aiz edo, ondoan egozanekaz izketan asi nintzan. Kubatar batzuk ziran. Oso pozik joiazan. Cuba'ko arrantzale batzuk ziran. Canarias eta Galicia aldeak oso politik iruditzen jakezan. Baiña, euren iritziz, Cuba'ren aldean ez ziran ezer: Cuba baiña zoragarriagorik ez egoan.

CUBA!

Ordu aspergarri eta luze areitan, danetariko« egin neuan: itz, lo, irakurri, gogaitu eta abar. Alango batean, egazkiñeko komandantearen abotsa entzun genduan: 35.000 oineko goieran eta Habana'ko Jose Mari egazkinzelaitik 45 minutotara gengozala azaldu euskun.


Azkenengo minutoak oso arin igaroro jatazan. Egazkiñetik jatsi eta neure maletak artzeko gogo bizia neukan. Baiña ez nauazan ain arin be artu. Eskuratu neuzanean, Aduana-tik igaro bearra egoan. Madrid'ekoa gitxi izan ba'zan, emen be bardiña egin bearra izan neuan. Baiña neke guztiak dau bere amaia, eta alan gertatu jatan niri be: ez zan makala izan nire poza itxarotzen neukazan biak euskaldunak zirala ikustean!

(jarraitzeko)

Piru LEGARRETA

ASTIRO

5.^a



Gorri

- 12 IZKI'koak
fotógrafa
- 9 IZKI'koak
ruina, desolación
charla
re.oj
- 8 IZKI'koak
primavera
mirar
patada, coz
- 7 IZKI'koak
él mismo
en ninguna parte
posible


- 6 IZKI'koak
carbón (el)
escampar
aparecer
rescatar, librar
- 5 IZKI'koak
manifiesto, visible
perder
nochebuena
también
reventar, explotar
cocer, digerir
abundante
resto, sobra
sacar
saben

- 4 IZKI'koak
nuestro
coger
tampoco ¡tal
- 3 IZKI'koak
¿quién?
crecer
tú mismo
aliento
¿qué?
deuda
llama
grano, semilla
ala = meridional
falta (carencia)
a allí
turbio
sí

- 2 IZKI'koak
poder
no
morir
los, las
es/y
sufijo: con, por
sufijo; de jerundio
próximo, cerca
no
ahí
bueno (inv.)
lo tiene
beso
yo
a, al
gusano, lombriz

a	b	d	d	e	f	g	i	j	k	l	l	m	n	ñ	o	p	r	í
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19
s	t	t	ts	tx	tz	u	x	y	z	¿?	"							
20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31							

4.^a ERANTZUNA



Gorri

IZKI-NASTEA (ERANTZUNA)

D A D X U Z O I P A M L I G A
E M O T S T I D N R E O T S E
K X N J Y O G E P A R B I T R
A T O L E G A Y A R R E A X R
M X S L I L L A K L E S J R E
B A T E G Ñ U J O L A P X B
P X I Ñ O D M U P R K Y I U D
I D A R R I A G A R R A G Z A
D Y T A R L L S Y U J D U I R
K Z E N A L G E J T S I R B I
A G T S I B A Ñ A L L E J S

ALKARTASUN-BIDEAN (ERANTZUNA)

1G 6J
2M 7A
3B 8E
4K 9D
5L 10I

2 5 14 5 2 5 14 5 21 1 14 5 26 29 10 5 18 1 13 1 8 21

2 1 3 16 29 26 31 5 26 29 10 5 18 1 29 1 11 5 1 10 31

1 18 7 8 21 1 18 1 21 29 5 14 3 1 2 5 14 31 29 5 18 31

8 12 5 18 16 10 16 1 8 18 1 10 26 18 8 29 1 2 1 11 3 26

21 1 5 18 1 10 26 20 21 5 14 1 11 5 7 8 14 3 26

29 1 8 21 5 29

7 16 18 18 8

ARGIPENA URRENGO ZENBAKI'AN

EUSKERAZALEAK

BILBO EUSKALDUNTZEN

Euskaldunak ba-daukaguz olako ames ausarti batzuk. Eta, txarrena, ames orreik egi biurtu ta bizitzan bete bear doguzala bururatzen jaku. Or asten gara geiago barik jo ta ke lanean.

Eta iñoz ames ori egi biurtzea lortzen dogu.

Olako ames bat da talde batentzat, beste talde batzuk be ba-dirala lankide jakin arren, Bilbo euskalduntzea. Eta lan orretan diardu jo ta ke gure EUSKERAZALEAK TALDEAK.

Orretarako dira ainbeste ikasleri emoten jakezan ikas-aldiak, irakasleak sortzeko egiten diran ekiñaldiak... orretarako ateraten diran ikasbideko liburu egokiak... orretarako laster argia ikusiko dauan gure egutegi barria... Orretarako KILI-KILI... ZER...

* * *

GASTEIZ EUSKALDUNTZEN

Eta Bilbo euskalduntzea ames utsa dala uste dauanak, zer esango dau Gasteiz be euskaldundu nai dabenen ekiñaldiak gogoratzean?

Ba-diardue ekiñaldi orreik be gogotsu, ba-dira an be EUSKERAZALEAK eta beste talde batzuk, naikoa isillean eta egokiro lan egiten, Aldundia be laguntzaille dabela.

* * *

ZELAN LORTU?

Baiña izan gaitezan ikusle argiak, ezarri dagiguzan oiñak lurrean. Olako uri aundi bat, osc-osoan erdeldun dana, euskaldundu lei ala ez?

Oso lan gaitxa iruditzen jaku, baiña erdeldun artean euskaldun batzuk izatea bai lortu leikela ta lortu bear dala. Orreik beti izango dira geroko euskalduntzearen oiñari ta azi.

Baiña Euskalerra osoa euskalduntzeko bide bakar bat baiño ez dogu ikusten; Txiki-txikitatik asita, ikastetxe guztietan guztiai nai ta nai ez euskerea irakastea. Orrelan, urteak joan eta urteak etorri, erri guztiak ikasiko leuke eta laroge urte barru Euskalerra guztiak jakingo leuke euskeraz berba egiten.

Guk ez dogula ikusiko? Egia da, baiña pide ori artzen ba'da, itxaropentsu ilgo gara eta itxaropenak bizitzan be lanerako poza emongo dausku.

* * *

AURKALARIAK


Erdera egiten dan lurraldeetan bizi diranak eginbide orren aurkako dira: Jentea bear-tzen ba'dozue, gorrotagarri biurtuko zaree! Euskotar jatorra izateko ez dago euskeraz itz egin bearrik! eta olakoak esaten dabez. Eta ori diñoen artean eskoletan erdere, gaztelerea, bearezkoa da, eta mailla askotan erbesteko izkuntza bat ikastea be bai, ezelako gorrotorik sortu barik.

Artu bei gure Gobernuak, jaurlaritzak, bide ori ezelako bildur barik, Israel'en artu zan lez eta euskotarrak, Euzkadi'n bizi garan guztiak, izan gaitezan euskaldun.

OLAZAR'tar Martin'ek

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

Bizkaia 'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia